

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

#### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

## 1581

*200/2020 EBAZPENA, otsailaren 24koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez argitara ematen baita eranskinean ageri diren esleipendunak estatutupeko pertsonal finko izendatzen direla, Medikuntza Fisikoa eta Errehabilitazioko Mediku Fak. Esp. kategorian txanda ireki bidez, destinoa Osakidetzako zerbitzu-erakunde sanitarioetan izanik.*

Osakidetzako zuzendari nagusiaren otsailaren 5eko 103/2018 Ebazpenaren bidez, Osakidetzan estatutupeko lotura estatutario finkoa lortzeko hautaketa-prozesuak arautuko dituzten oinarri orokorrak onartu ziren (2018ko otsailaren 8ko EHAA 28. zk.).

Osakidetzako zuzendari nagusiaren otsailaren 7ko 111/2018 Ebazpenaren bitartez, Fakultatibo Mediko eta Teknikoen lanbide-taldeko Medikuntza Fisikoa eta Errehabilitazioko Mediku Fak. Esp. kategorian estatutupeko pertsonal izateko hautaprobak deitu ziren, destinoa Osakidetzako zerbitzu-erakunde sanitarioetan izanik (2018ko otsailaren 19ko EHAA 35. zk.).

Osakidetzako Giza Baliabideen zuzendariaren irailaren 18ko 650/2019 Ebazpenaren bidez, Osakidetzaren webgunean argitaratzeko agintzen da oposizioaldia gainditu duten txanda irekiko izangaien zerrenda, azken puntuazioaren arabera eta lehiaketaldiko puntuazioa eta oposizioaldiko puntuazioa bananduta, Fakultatibo Mediko eta Teknikoen lanbide-taldeko Medikuntza Fisikoa eta Errehabilitazioko Mediku Fak. Esp. kategorian estatutupeko langile izateko hautaprobei dagokien puntuazioa, hain zuzen ere. Izangai horiek Osakidetzako zerbitzu sanitarioetako erakundeetan izango dute destinoa.

Osakidetzako zuzendari nagusiaren otsailaren 5eko 103/2018 Ebazpenaren 16. oinarrian xedatutakoari jarraikiz, Medikuntza Fisikoa eta Errehabilitazioko Mediku Fak. Esp. kategorian izangaien behin betiko zerrenda Epaimahaiak onartu eta Osakidetzako Zuzendaritza Nagusi honetara bideratu ostean, zerrenda hori webgunean argitara dadin; eta pertsonalaren arloan indarrean dagoen legeriak egozten dizkidan eskumenez baliatuz

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Osakidetzako webgunean argitaratzeko agintzea eranskinean ageri diren esleipendunak estatutupeko pertsonal finko izendatzen direla, Medikuntza Fisikoa eta Errehabilitazioko Mediku Fak. Esp. kategorian txanda ireki bidez, destinoa Osakidetzako zerbitzu-erakunde sanitarioetan izanik.

Bigarrena.– Esleipendunek hilabeteko epea izango dute destinoaz jabetzeko, ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Osakidetzaren Zuzendaritza Nagusian (Egoitza Zentralean) hartu beharko da destinoaren jabetza; horretarako, hautagaiak hitzordua eskatu beharko du lehenbizi, eta ekitaldian dokumentazio hau aurkeztu beharko du:

– NANA, pasaportearen edo gidabaimena edo dokumentu baliokidea Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoko beste estatu kideren bateko nazionalitatea dutenentzat, edo Europar Batasuneko Itunaren arabera nahiz Espainiak berretsitako beste hitzarmen batzuen babesean

nahiz lege arau baten bidez langileak estatu batetik beste batera libre ibiltzeko aukera aplikatzen zaien estatuetako nazionalentzat.

Parte hartzeko eskubidea izanik Espainiako nazionalitatea ez duten izangaiek nazionalitatea egiaztatzen dien dokumentua aurkeztu behar dute, eta, beste Estatu bateko nazionalitatea duen norbaitekiko ahaidetasun-lotura izan edo haren kontura biziz gero, lotura hori dutela egiaztatzen duten dokumentuak ere bai. Era berean, ezkontidearen zinpeko deklarazio bat edo hitzemate bat aurkeztu behar dute beste ezkontidearengandik zuzenbidez bananduta ez dagoela adierazteko eta, hala badagokio, hautagaia haren kontura edo kargura dagoela adierazteko.

– Elkargoko kide izatearen egiaztagiria, deialdiko oinarri espezifikotan hala eskatzen denean.

– Diziplina-espediente bidez hautagaia administrazio publikoetako zerbitzuetatik kanporatuta ez dagoela eta eginkizun publikoetarako ezgaituta ez dagoela adierazten duen zinpeko aitortpena edo hitzematea.

Espainiako nazionalitatea ez duten hautagaiek, Espainiako Estatuari buruzko deklarazioaz gain, zinpeko deklarazioa edo hitzematea aurkeztu behar dute, esanez ez daudela eginkizun publikoetarako desgaituta edo antzeko egoera batean, eta orobat haien Estatuan, baldintza beretan, funtzio publikora sartzea eragozteko moduko diziplina-zehapen edo baliokiderik ez dutela.

– Destinoa normaltasunez betetzeko behar den gaitasun psikofisikoa egiaztatzen duen azterketa medikoaren agiria, Osakidetza-Prebentzio Zerbitzuak emana.

– Erantzukizunpeko adierazpena, Adingabearen Babes Juridikoari buruzko urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoaren 13.5 artikulua betetzeari buruzkoa; eta Sexu Delitugileen Erregistro Zentralaren ziurtagiria lortzeko baimena, urriaren 13ko 1314/2016 Ebazpenean xedatutakoaren arabera. Ebazpen horren bidez, Osakidetza adingabeekin ohiko harremana izatea dakarten lanpostuetan sartzeko eta jarduteko betekizunari buruzko jarraibide osagarriak onartzen dira.

Hirugarrena.– Emandako epe horretan aipatutako agiriekin bertaratzen ez direnak, edo, agiri horiek aztertuta antzematen bada betebeharren bat betetzen ez dutela, ezingo dira jabetu estatu-tupeko pertsonal gisa esleitu zaien destinoaz. Ondorioz, deuseztatuta geratuko dira jarduerak, eta hori ez da eragozpena izango hasierako eskabidean faltsukeriaren bat jartzeagatik izan dezaketen erantzukizuna eskatzeko.

Era berean, interesdunei jakinarazten zaie lanpostuaz jabetzeko ekitaldira dagokien epearen barruan edo, hala badagokio, emandako luzapenean, aurkeztu ezean, galdu egingo dituztela hautaprobei buruzko ebazpenetan aitortu zitzaizkien eskubideak.

Orain arte adierazitakoari jarraituz, dagokion izangaia lanpostuaz jabetzen bada, beharrezko eginbideak bete eta hurrengo egunean hasiko da lanean, osasun-zerbitzuaren barruan esleitu zaien erakundean.

Laugarrena.– Hautaketa-prozesuko oinarri orokorretako 21. atalean ezarritakoaren arabera, ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea egongo da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko otsailaren 24a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,  
JUAN LUIS DIEGO CASALS.

2020ko martxoaren 16a, astelehena

## ERANSKINA

2016-2017ko OSAKIDETZAKO ENPLEGU PUBLIKORAKO ESKAINTZA

DESTINOEN ESLEIPENA

KATEGORIA: FAK. ESP. MEDIKUNTZA FISIKOA ETA ERREHABILITAZIOA  
TXANDA: IREKIA

| NAN/AIZ   | Izangaia                             | Destino esleitua                                          | Derrigorrezko data |            |
|-----------|--------------------------------------|-----------------------------------------------------------|--------------------|------------|
| ***7583** | Ortiz Fernandez, Leire               | Bilbao-Basurtoko ESI-a, Basurtuko Unibertsitate Ospitalea | 2HE                |            |
| ***9470** | Ibarluzea Salvador, Miren Estibalitz | Donostialdeko ESI-a, Donostiako Unibertsitate Ospitalea   | 2HE                |            |
| ***0501** | Muñoz Garnica, Maria Jesus           | Arabako ESI-a, Arabako Unibertsitate Ospitalea            | 2HE                |            |
| ***0978** | Suarez Vazquez, Ana                  | Gorlizko Ospitalea, Gorlizko Ospitalea                    | 2HE                |            |
| ***8816** | San Sebastian Herrero, Amaia         | Arabako ESI-a, Arabako Unibertsitate Ospitalea            | 2HE                |            |
| ***0886** | De Abaitua Ezquerria, Maria Paz      | Gorlizko Ospitalea, Gorlizko Ospitalea                    | 2HE                | 2013-12-03 |
| ***3079** | Diaz Ramos, Francisco                | Debarreneko ESI-a, Mendaroko Ospitalea                    | 2HE                |            |
| ***6589** | Carbajal De La Red, Margarita        | Debarreneko ESI-a, Mendaroko Ospitalea                    | 2HE                | 2013-12-03 |
| ***8552** | Madariaga Zabala, Amaia              | Gorlizko Ospitalea, Gorlizko Ospitalea                    | 2HE                | 2013-12-03 |